



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Jasangarritasunera bidaia

Lehen Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

Duela 15.000 urte, Urdaibain, gizakia naturaren mende zegoen erabat.

Santimamiñen bere historiaurreko bizitza nolakoa zen jakingo dugu, aztarnategira 1,5 orduko bisita eginez eta 3Dko esperientzia birtual batekin. Ondoren, Urdaibaiko Ekoetxean, paisaia eta ingurune erabilerak gaur arte nola aldatu diren aztertuko dugu. 1,5 ordu inguruko Ekoetxea Urdaibaira egindako bisitak gaurkotasunera itzuliko gaitu, naturaren mende jarraitzen dugula ulertuko dugu eta ekintzara nola pasatu ikasiko dugu modu jasangarriagoan bizitzeko.